

LABORAL KUTXAKO KONTSEILU ERREKTOREKO KARGUAK BERRITZEA

Caja Laboral Popular, Coop. de Cr ditok —aurrerantzean, Laboral Kutxa—, haren Kontseilu Errektoreak uztailaren 28ko ohiko bilkuran hartutako erabaki bidez, kontseilariak berritzeko prozedura abiaraztea erabaki zuen. Agintaldia 2015ean amaitzen zaien 6 kide titularri eta 3 ordezkori eragingo dio prozesuak. Horietatik, 2 titular eta ordezeko 1 lan-bazkideak dira.

Lan-bazkideen kasuan, Kontseilu Sozialaren bidez garatutako prozedura espezifikoa erabiliz aurkeztuko dira aurrehautagaiak.

Hautagai izan nahi duten gainerako bazkideek eskabide-idazkia igorri beharko diote Kontseilariak Hautatu eta Ebaluatzeko arduradunari, **comitenombramientosyremuneraciones@laboralkutxa.com** helbidera. Idazkian, 2015eko hurrengo Batzar Nagusian hautatuko den Kontseilu Errektorean parte hartu nahi duela adierazteaz gain, izena emateko inprimakia eskatuko du, bete ondoren bueltan bidaltzeko, ezinbestekoa baita prozesu horretarako.

Hautagaien lehen zerrendako partaide izateko inprimakiak 2014ko irailaren 15etik 2014ko urriaren 15era bitartean aurkeztuko dira.

Laboral Kutxaren bereizgarrien artean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zaintzea dago. Horren harira, genero aldetik osaera orekatua izango duen hautagai-zerrenda osatu nahi du Kontseilu Errektoreak, eta, horretarako, ezinbestekoa da nahi duten Laboral Kutxako emakume bazkideek prozesuan parte hartzea eta hautagaitza aurkeztea.

Onartutako hautagaiek egokitasun-azterketa bi gaintu beharko dituzte: lehenik, barruko irizpideen arabera eta, bigarrenik, Espainiako Bankuarena. 84/1993 eta 256/2013 EDetan eta Kontseilariak eta Funtsezko Pertsonala Hautatzeko eta Egokitasuna Ebaluatzeko Prozedura Gidaliburuan ezarritako irizpideak bete beharko dira.

I naki Josu Go ni Gabilondo

Kontseilu Errektoreko Idazkaria

Arrasaten, 2014ko uztailaren 28an

Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Legean —aurrerantzean, LOPD— jasotakoari jarraiki, CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Cr ditok jakinarazten dizu, karguak berritzeko prozesu honetan zuk emandako datuak CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Cr ditoren jabetzako fitxategi batean gordeko direla, Caja Laboral Popularreko Kontseilu Errektoreko hautagai-zerrendako kide izateko eskabidea tramitatzeko.

Datuak bidaltzen badituzu, berariazko baimena ematen duzu datu horiek aurreko paragrafoan adierazi den helbururako erabiltzeko.

Alabaina, eskubidea izango duzu, datuok ikusteko, aldatzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko. Horretarako, nahikoa duzu CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Cr ditors idazki bat bidaltzea, J. M. Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500 Arrasate helbidera edo comitenombramientosyremuneraciones@laboralkutxa helbide elektronikora.